

## ZIRKULARRA: APARTEKO PREBENTZIO NEURRIAK COVID-19AK ERAGINDAKO EGOERA EPIDEMIOLOGIKOAK IZAN DUEN BILAKAERAREN ONDORIOZ

Abenduaren 16ko 290. Nafarroako Aldizkari Ofizialak honakoa argitaratu du: batetik, **Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren 29/2020 Foru Dekretua, abenduaren 14koa**, zeinaren bidez prebentzio neurriak ezartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, SARS-CoV-2ak eragindako kutsatzeen hedapena geldiarazteko; eta bestetik, **63/2020 Foru Agindua, abenduaren 14koa**, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez berriazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz.

Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren Foru Dekretuak pertsonen mugikortasuna mugatzeari eusten dio bai eta eremu publikoan nahiz pribatuan bilerak mugatzeari ere. Hala ere, salbuespenak ezartzen ditu Gabonetan.

Hala, gauez zirkulatzeko askatasunari dagokionean, abenduaren 24tik 25era doan gaua eta abenduaren 31tik urtarrilaren 1era doan gaua, baimenduta egonen da bide edo espazio publikoetan barna ibiltzea 23:00etatik 01:30era arte, norberaren etxetik kanpo afaldu ondoren bertara itzultzeko.

Bestalde, 23tik 26ra eta abenduaren 30etik urtarrilaren 2ra, baimenduta dago Nafarroako Foru Komunitatean sartu eta irtetea familiakoak edo hurbileko pertsonak bisitatzeko. Joan-etorrietarako arrazoi hori egiaztatzeko, foru dekretuaren eranskinean ezarritako eredia erabili beharko da.

Familiakoekin edo hurbileko pertsonekin bilkurak egiten badira Eguberrietako bazkariak eta afariak egiteko, abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean, gehienez ere 10 pertsona elkartuko dira, gehienez ere bi bizikidetz-unitatetakoak.

Foru Dekretuan aurreikusitako neurriak 2021eko urtarrilaren 14a bitartean egonen dira indarrean.

Bestalde, ondoren 63/2020 Foru Aginduak sektorez sektore ezartzen dituen berritasunak adieraziko dira:

- **Ostatuak eta jatetxeak**: Kontsumoa baimentzen da establezimenduen barnealdean, baimendutako gehieneko edukieraren %30ean. Debeku da barran kontsumitzea.

Bai barnealdean bai terrazetan ere mahai bakoitzean, gehienez ere, lau pertsona egonen dira. Salbuespen gisa, gehienez ere sei lagun elkartzen ahalko dira, baldin eta mahaiaren edo mahai multzoen neurriek 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzen badute pertsonen artean.

Ixteko ordua 22:00ak izango dira lokalak jendez hustu ondoren. Janariak prestatu eta zerbitzatzeko ahalko dira etxera eramateko edo aurretiko hitzordua izanda establezimenduan hartzeko, 22:30ak arte.

- **Hotelak:** Hoteletako eta ostatu turistikoetako eremu komunetan, okupazioak ezin izanen du gainditu baimendutako gehieneko edukieraren %50, eta uneoro mantendu beharko da 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.
- **Aterpetxeak:** ezin bada pertsonen arteko gutxieneko segurtasun tartea gorde, okupazioa baimenduriko gehieneko edukieraren %30 izatea baimenduko da. Bestela, gehieneko edukieraren %50 izanen da.
- **Kultua:** ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren %30, eta, betiere, 150 pertsona gehienez.
- **Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak, eta bestelako ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibilak:** gurtza-lekuetan egiten badira, aurreko puntuan azaldutako edukierak aplikatuko dira. Bestela, pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea errespetatu beharko da (hots, 2,25 metro koadro pertsona bakoitzeko) lokal horien barnean.

Zeremoniaren ondotik ospakizunak egiten badira ostalaritzako establezimenduetan edo jatetxeetan, errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tarteak pertsonen artean, eta ez da behin ere gaindituko 12 pertsonaren kopurua, gehienez, establezimenduen barruan, eta 20 pertsonarena, kanpoan bada. Ez dago baimenduta dantzatzeko pista edo horretarako prestatutako eremua erabiltzea.

- **Txikizkako merkataritza:** Edukiera %50era handitu egiten da.
- **Akademiak, autoeskolak eta irakaskuntza ez-arautuko zentroak, eta prestakuntza zentroak** Edukiera %50era handitu egiten da.
- **Liburutegiak eta artxiboak:** Edukiera %50era handitu egiten da eta 21:00etan itxiko dira beranduenez.
- **Kirol-jarduerak:** edukierak Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bidez ezarriko dira. Lehiaketa ez-profesionalak eta kirol-ekitaldiak ikusleekin egiten ahalko dira, baldin eta ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren %50. Instalazio itxietan, 200 lagun joaten ahalko dira gehienez publiko gisa, eta aire zabaleko instalazioetan 400 lagun. Kopuru horiek

gainditzen badira, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten loteslea beharko da.

- **Igerilekuak:** Edukiera %50era handitu egiten da.
- **Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak:** Edukiera %50 izatetik %75era handitu egiten da.
- **Monumentuak, erakustaretoak eta museoak:** Inaugurazioak egiten ahalko dira, baldin eta jatetxe zerbitzurik ez badago, eta segurtasun-tarteak bermatzen ahal badira. Edukiera %50ekoa izanen da, eta jarlekuak aurretik esleituko dira. Jarduera zutik egiten bada, edukiera irizpide honi jarraikiz kalkulatu da: 3 metro koadro pertsonako.
- **Zinema-aretoak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak eta antzekoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko beste lokal batzuk, eta ikuskizun publikoetarako eta olgetako edo aisialdiko jardueretarako establezimenduak.:** Ezin izango da baimenduriko gehieneko edukieraren %50 gainditu. Nolanahi ere, gehieneko edukiera ezin izanen da 200 pertsonatik gorakoa izan barrualdean ezta 400 pertsonatik gorakoa ere kanpokoetan. Kopuru horiek gainditzen badira, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten loteslea beharko da..
- **Biltzarrak:** Telematikoki egitea lehenetsiko da. Beste modalitate edo formatu batean egin nahi izanez gero, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari jakinarazi beharko zaio aurretik.
- **Topaketak, akziodunen batzarrak, lanbide-elkargoen bilerak, negozio-bilkurak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egitea:** Halakoak egiten ahalko dira, baldin eta ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren %50, eta betiere 200 lagun gehienez; horiek eserita egon beharko dute, 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatuz horien artean. Bozketarik egin behar bada, pertsonak mugitzea saihesten duten bozketa sistemak erabiliko dira.
- **Bingoak, eta joko-, apustu- eta jolas-aretoak:** beren jarduera gauzatzen ahalko dute, baldin eta ez bada gainditzen baimenduriko edukieraren %30 eta 22:00etan itxiko dira, lokalak jendez hustu ondoren.
- **Ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak:** Baimenduta egonen da establezimendu hauen jarduera, salbu ospakizun familiarak, sozialak, lagun artekoak edo aisialdikoak badira, jatekoak eta/edo edatekoak tarteko, horiek debekatuta egonen baitira.
- **Elkarte gastronomikoak eta peñak:** itxita jarraituko dute. Etenaldi horretatik salbuetsita daude beste establezimendurik ez dagoen 500 biztanle baino

gutxiagoko udalerrri txikietan kokatutakoak, herri guztia elkartzeko lokal bakarrak badira.

- Eguberrietako jarduerak:

- Ez dira baimenduko betiko olentzeroak, erregeen kabalgatak, desfileak, kalejirak, San Silbestrea edota publikoarekin –eta, beraz, jendea pilatzeko arriskuarekin– kaleetan egiten den ospakizunik.
- Nolanahi ere, Gabonetako azoka txikiak, aire zabalekoak, jaiotzen erakusketak eta Gabonetako ospakizunak, formatu ez tradizionalen egiten badira, tokiko osasun agintaritzak espresuki baimendu beharko ditu, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ezartzen dituen jarraibideen esparruan.

Foru Agindu honetako neurriak 2020ko abenduaren 17tik 30era egonen dira indarrean bi egun horiek barne.